

ENTZUMEN ETA HIZKUNTZAKO KASU PRAKTIKOAK

1. KASUA:

Iruñerriko D ereduko Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola publiko batean zaude. Haur Hezkuntzako 3 gela daude (3, 4 eta 5 urtekoak) eta bakoitzean 20-22 ikasle daude. Komunikazioko eta hizkuntzako prebentzioaren esku-hartzea bideratu behar duzu.

Erantzun ondorengo galderei:

1. Nola antolatuko zenuke (jarduerak, baliabideak...)?
2. Familiei zein orientabide emango zenieke?

2. KASUA:

Sei urte eta zortzi hilabeteko ikasle bat duzu. Ama hizkuntza euskara du eta familiaren aldetik estimulazio handia jaso izan du. Sakanako zonaldeko ikas-komunitate batean matrikulatua dago, Lehen Hezkuntzako 1. mailan. Gelan 16 ikasle daude.

Orientatzaileak pasatutako frogen arabera, atzerapen kognitiboa eta sentsoriala ezeztatu dira. Ikasleak honako ezaugarri hauek azaltzen ditu:

- Akats fonologikoak egiten ditu.
- Hiztegi pobrea du.
- Ulermena adierazmena baino hobea da.
- Egitura sintaktiko desegokiak erabiltzen ditu.
- Memoria eta ebokazio arazoak ditu.
- Irakurketa-idazketa prozesuan zailtasunak ditu.

Erantzun ondorengo galderei:

1. Zein ebaluazio egingo zenuke komunikazioan eta hizkuntzan?
2. Ebaluaketa horren arabera zein diagnostiko aurreikusten diozu?
3. Nolakoa izango litzateke zure esku-hartzea? Eta tutorearena? (denboralizazioa, taldekatzea, metodologia...)
4. Zein hiru ariketa planteatuko zenituzke irakurketa-idazketa lantzeko egokiak?